

Gernika 10 urte
1997-2007
X Aniversario de Gernika

Lizarratik Garazira, indarrak biltzeko bidea

Itziar Gabikagogeaskoa

GIDOIA/ GUION

ELA

Arriaga Antzokia / Teatro Arriaga

Bilbo, 2007ko urriaren 10

10 de octubre de 2007

SARRERA: ITIZAR GABIKAGOGASKOA

Egunon guztioi. Ongi etorriak Arriaga Antzoki honetara.

Gernika 10 urte. Han bildu zirenek denbora azkar joan dela esan didate. Ezagutu ez genuenek, ordea, hartaz entzuten duguna kuriositatez eta zirraraz begiratzen diogu. Egun handia hala ere abertzaleentzat, egun borobila. esan didatenez.

Esangura berezia, oso berezia izan zuen ekitaldiak. Bertan, abertzale guztiak bildu ez baziren ere, abertzaletasun guztiak bat egin zuen ekitaldian.

Barnealde begira, egoeraren diagnostikoa burutzeko gure gaitasuna eta heldutasuna erakutsi zuen ekitaldiak eta, bestetik, sindikatu bezala nazio prozesuan eragiteko borondatea irmoa finkatu ere.

Kanpoko testuinguruan, oso lokarturik zegoen mugimendu abertzalea arnasberritu eta bide berriak jorratzeko agertoki izan zen Gernika. Ondorengoak ere maila berekoak izan ziren. Lizarra-Garazi akordiorako ezinbesteko mugarría izan zen Gernikan plazaratutako erreferentzia.

ELA- ante el conjunto del movimiento abertzale- explicitó, de manera inequívoca, el cierre de una etapa, el fin del ciclo estatutario. Ni contenidos sociolaborales, ni garantías de su cumplimiento. “El Estatuto ha muerto” resumíamos. Cerrábamos así el tiempo del marco estatutario: ni el Amejoramiento ni el Estatuto podían dar cabida a nuestras aspiraciones en clave nacional y en clave social.

En segundo lugar, la necesidad de sumar fuerzas y articular un trabajo compartido entre abertzales para abrir un nuevo marco jurídico-político fueron el eje sobre el que ELA concretó su propuesta al resto de fuerzas allí presentes.

Y en tercer lugar, afirmamos que en este proceso, la lucha armada debía cesar. “ETA sobra y estorba”, porque es un obstáculo en la necesaria acumulación de fuerzas abertzales y el proceso debe ser civil y democrático, concluimos. Por desgracia, el atentado de ayer aquí, en Bilbao, nos confirma que estamos en lo cierto. ELA quiere condenar con firmeza el atentado, a la vez que expresa su solidaridad con Gabriel Giner, herido en el mismo. Con este fin, en vez de la manifestación prevista, al finalizar este acto nos concentraremos aquí mismo en la Plaza del Arriaga

Egun, gauden egoera ikusirik, ez zait iruditzen Gernikatik hain urrun gaudenik. Iragandako denbora ez da alperrikakoa izan bainan hortxe diraute eskumen eza, ETA, eta abertzale arteko konponezina.

Norbanakoen interesak eta estrategiak gailendu dira denbora honetan eta, ondorioz, ikuspegi nazionala garatzeko zailtasunak begi bistakoak dira. Dena den, arazoaren aurrean gure ikusmoldea eta koerentziari eutsiz, egun gure hausnarketa plazara ekartzera goaz.

Ez da diskurtso hutsala, ez da hedabidetarako izenburua bilatzen duen titularra. ELAn barnean azken urteek eman diguten esperientzia eta gure hausnarketa azaldu nahi ditugu.

Ezin utzi aipatzeke, ELA-ren “Gernika” posible egin zuten militanteak, ELAren birkokapen estrategikoa landu zutenak, hain zuzen. Batzu, gehienak, gure artean daude, zorionez. Beraie, bereziki, eskerrik beroenak,

En el acto de Gernika hicimos una mención especial para nuestro compañero ertzaina Txema Agirre, asesinado por ETA escasos días antes del acto. Hoy también queremos tenerlo presente en nuestro recuerdo junto con el resto de personas militantes que nos han dejado, por razones diversas.

Beraz, beren omenez, minutuko ixilunea eskeiniko diegu. Puestos de pie, dedicaremos un minuto de silencio en memoria de Txema Agirre y cuantos militantes de ELA han fallecido en este período.

(1 minutuko ixilunea)

Mila esker denoi.

ELA, gure proiektuaren hausnarketak ez du, ordea, etenik. Aurrera jarraitzen du etengabe. Bideari eutsiz, gaurko egunez ere gure ikusmoldea eta pentsamendua plazaratu nahi ditugu eta horri ekingo diogu.

Los contenidos de las intervenciones se colgarán a la mayor brevedad en la página web de ELA en euskera y castellano.

Eta besterik gabe, IZASKUN GARIKANO, Gizalan federazioaren Idazkari Nagusiari emango diogu hitza. Izaskunek eredu sozialari buruz arituko da. Aurrera Izaskun.

Mila esker Izaskun.

Segidan, Adolfo Muñoz, “Txikik” Idazkari Nagusi Albokoak izango du hitza. Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Joku Arauei buruz hitzegingo digu. Zurea da hitza Txiki

Mila esker.

Eta azkenik, Joxe Elorrieta, ELAko Idazkari Nagusiak hartuko du hitza. Egoeraren aurrean ELAren hausnarketa eta proposamena agertuko dizkigu. Aurrera Joxe.

MILA ESKER DENOI.

Orain elkarretaratzea burutuko dugu hemenxe bertako plazan.

Gernika 10 urte

1997-2007

X Aniversario de Gernika

**Lizarratik Garazira,
indarrak biltzeko bidea**

Jose Elorrieta

Idazkari Nagusia / Secretario General

ELA

Arriaga Antzokia / Teatro Arriaga

Bilbo, 2007ko urriaren 10a

10 de octubre de 2007

Kaixo lagunok,

Beste ezer baino lehenago adierazi nahi dut gure desadostasuna atzoko atentatuarekin, eta gure elkartasuna zauritu zuten Gabriel Ginesekin. Behin eta berriro azpimarratuko dugu ETAREN ekintzak ez daukatela zentzurik ez lekurik gure herrian.

la konturatu gabe pasatu dira hamar urte ELAK Gernikan egin zuen ekitalditik. Zerbait azpimarratzekotan, garai hartan esan genuen bukatu zela bai ETAREN denbora, baita estatutismoaren denbora ere. Eta fase berrian derrigorrezkoa zela abertzaleen indar metaketa lortzea subiraniaren alde prozesu bat irekitzeko.

Ematen zuen sektore politiko eta sozial desberdinek iritzi berdina edo antzekoa zutela, eta zorionez epe labur batean martxan ipini genuen Lizarra-Garazi.

Egia esateko asmoa bikaina zen, baina zerbait gaizki egin genuen, eta ia hasi orduko Lizarra-Garazik eztanda egin zuen.

Ordutik hona egoera desberdinetan egon gara; batzutan baikor eta, alderantziz, besteetan ezkor, eta badirudi hasierako puntuan gaudela: ETA oraindik hor dago eta estatutismoak, nahiz eta hilda egon, badauzka ere jarraitzaileak, sektore abertzale batean behintzat.

Ez dugu ulertzen nola, hain garbi ikusita estatuaren jokia, baztertu dugun Lizarra-Garaziko estrategia, hau da, indar metaketa abertzaleen artean lortzea estatuaren inobilismoari demokratikoki aurre egiteko.

Transbersalitatea gora, transbersalitatea behera, gauza bat bakarrik geratzen da garbi: estatua ez dagoela prest Euskal Herriaren eskubideak errespetatzeko.

Koiuntura politikoaren azterketa egiterakoan, aipatu beharrekoa da Ibarretxe lehendakariak Gasteizko Parlamentuan egin duen proposamena.

Noski, gu kontsultaren alde gaude; horregatik uste dugu aurretik kondizio sendoak eman behar direla. Gure ustez, gobernuaren eguneroko gestioa ez da inondik inora koherentea proposamen horrekin; ahaztu gabe lehendakariak ez dituela bete aurretik hartu zituen konpromisoak.

Noski, jende abertzaleak ilusioa behar du, eta egoera ez da baikorra izateko, baina hori ez da nahikoa inondik inora holako proposamen bat martxan ipintzeko.

Kontsentso handiagoa behar da. Horretarako, hurbiltasun gehiago, koherentzia gehiago, esaten eta egiten denaren artean.

Eta gero, batez ere zaindu gizarte-eredua. Neoliberalismoaren eskutik ez dator indar metaketarik.

Guk, azkenean, geure azterketa egin behar dugu, eta askatasun osoz esan nola ikusten doguzen gauzak. Batzutan asmatuko dugu, eta beste batzutan ez, baina

indar metaketa bat egin behar badugu, aurretik eztabaidatu behar da ze baldintza minimotan planteatzen den.

Gernika 10 urte
1997-2007
X Aniversario de Gernika

Lizarratik Garazira,
indarrak biltzeko bidea

Adolfo Muñoz, "Txiki".

Idazkari Nagusiaren Albokoa / Secretario General Adjunto

ELA

Arriaga Antzokia / Teatro Arriaga

Bilbo, 2007ko urriaren 10

10 de octubre de 2007

Joko-arauak hautsi, eraso antisoziala gotortzeko

Kaixo lagunok, egunon guztioi

Hamar urte beranduago, hamar urte geroago, berriz ere, Gernikan egin genuen bezala, ELAko militanteak biltzea erabaki dugu, gure autogobernuaren osasuna txekeatzeko. Gure Iparraldeko lagunek esango zuten bezala, "xehean-xehe" miatu nahi ditugu gure autogobernuaren nondik norakoak.

Batek baino gehiagok pentsa lezake hori ez dela sindikatuaren egin beharra, ez dela gure ardura, ez dagokigula guri azterketa politiko oso oso bat egitea eta kaleratzea. Baina guri dagokigu erabakitzea, zertaz hitz egiten dugun eta zertaz ez, eta ez beste inori.

Gure sindikatuak gertutik jarraitu nahi izan ditu burujabetzaren gorabeherak historikoki. Hala egin zuen hogei eta hamargarren hamarkadan, estatutuaren eztabaida puri-purian zegoenean, eta horixe egiten jarraituko du. Zergatik? Langileak garelako, eta langile jendearen ongizatearekin zerikusi handia duelako burujabetzak, autogobernuak; azken batean, sindikatua garelako, euskal sindikatua osatzen dugulako.

Momentu honetan, herri honen artikulazio juridikoaren eztabaida gori-gori dagoenean, azterketa hori egitea guretzat premiazkoa da, oso urgentea, arrazoi simple batengatik: gure gauzak, langile jendearen beharrak eta nahiak, arazoak eta kezkak, eztabaida politikoaren lapikotik kanpo daudelako, ez direlako inondik agertzen.

Behartuta gaude gure gauzetaz hitz egitera. Are gehiago: gure gauzetaz ez ezik, gure hausnarketa, gure gauzetatik abiatu behar dugu, hauxe da gure ardura nagusia. Gure gauzekin gertatzen ari denak, egiten ari direnak, argi asko ematen baitigu eszenatoki osoa ulertzeko. Horrela uste dugu guk behintzat.

Ez gaude gustura Euskal Herrian langile jendeak pairatzen duen egoerarekin. Ez gaude gustura buruzagi eta arduradun politikoekin. Eta gure egoera konkretutik abiatuta, eztabaida politikoan agertzen eta nagusi diren zenbait elementu birtualak salatzea, agerian uztea, dagokio euskal sindikatu nagusiari. Horrela uste dugu guk. Eta horretara goaz.

- o - O - o -

Orain dela hamar urte egin genuen diagnostiko sozio-politikoaren atal asko, garrantzitsuenak, guztiz baliagarriak dira gaur egun ere. Gure idazkari

nagusiak gehiago sakonduko du gero berdin jarraitzen duten gauzetan, larriagotu diren gauzetan, eta argitu diren gauzetan.

Nik orain heldu nahi diodan gaia bereziki larria da, azaletik begiratuta puntuala eta berri samarra bada ere. Joko-arauak hausteari buruz hitz egingo dut. Eta berri samarra izan arren, badira urteak kontu hori salatzen hasi ginenetik, 1997. urteaz geroztik, hain zuzen.

ARAZOAREN NONDIK NORAKOAK

Ekitaldi hau prestatzen ari ginela, guztiz egokia iruditu zitzaigun puntu hau aparte tratatzea, arrazoi nabarmen batengatik: gure ustez euskal erakundeek **joko-arauak haustearen bidez eta Buletin Ofizialaz baliatuz**, azken batean bilatzen dutena **babesa ematea da egin izan diren hondamen sozialei eta politikoei**, ELAk hain sarritan salatu dituen hondamenei.

Hona hemen gehien hondatu diren arloak:

- Autogobernua orokorrean hartuta, eta zehazkiago, **lan harremanen euskal esparrua eta gizarte-babesaren arloa**.
- Gizarte-politikei eman dieten ikuspegi neoliberalak.
- Erakundeen partehartzearen itxurakeria.
- Negoziazio kolektiboaren krisia.

Arauek haustearen ondorioz sortutako egoera berria sisteman txertatu, errotu eta sendotu nahi dute, itxura naturala eman arte; saihestezina dela sinestarazteko, edo are gehiago, onuragarria ere badelako planta emateko.

Ez naiz ari, oraingo honetan, ezker-eskuin edo neoliberal-solidario erretorikaren tirabiraz. Horretaz izaskunek hitz egin du dagoeneko, eta geroago ere hitz egingo dugu. Orientabide liberala edo aurrerakoia dela-eta, egurra ematea elkarri guztiz normala da, jokabide demokratikoaren eguneroko zeregina, eta gizarte-klaseen arteko gatazkaren ondorioa. Guk geuk egiten dugu, patronalak ere bai, eta baita politikariek ere. Baina orain ez gara horretaz ari: Eusko Jaurlaritzak joko-arauak hausteko duen grinaz ari gara, funtsean.

Demokraziak atzera egiteko hartu duen joeraz ari gara, gaur egun arte ondo erantzun duten arauak hausteaz ari gara. Gatazka eta horren inguruko alderdiak legeztatzen zituzten arauak aipatu ditugu. Eta haiek, beren kabuz, erabaki dute ez dituztela gehiago errespetatuko.

1. Lehenengo eta behin, negoziazio kolektiboaren arauak hautsi dituzte.

ELAk hainbat urtetatik hona salatu izan du.

- Hortxe ditugu **eraginkortasun mugatuko hitzarmenak, gutxiengotik** sinatuta, eta sindikatu espainolek eta zenbait sindikatu abertzalek opari emanda patronal publikoei eta pribatuei. Arazo hori aski ezaguna da denontzat.
- Eta hortxe dugu erreibindikazio-ekintzaren **errepresioa**, gero eta nabariagoa. Ekintza kolektiboa, manifestariak, piketeak, kartel-jartzaileak... denak daude **auzitara** joateko arriskuan. Badirudi ez direla geldituko Kode Penalaren gizarte-arloan ezarri arte, baina langileei dagokienez bakarrik, noski.

Adibide horiek guztiek argi baino argiago erakusten digute zein punturaino hautsi diren esanbidezko zein isilbidezko arauak, gure herriko lan-harremanak erregulatzen luzaroan indarrean egon arren.

Gu saiatu gara hori zuzentzen, guri dagokigun arloan: arlo sindikalean. Ez dugu aldekorik aurkitu. Urte honen hasieran, ELAk **gutxienekoen akordio bat** egitea proposatu zien gainerako sindikatuei, negoziazio kolektiboan erabiltzeko. Gutxienekoak ezin ziren gutxiagokoak izan: puntu bakarra akordioa egiteko. Hitzarmenak gutxiengoan ez sinatzeko konpromisoa eskatu genien gainerako sindikatuei. Hortik aurrera, sindikatu bakoitzak aztertuko zituen batera jarduteko aukerak. Ba, CC.OO.ek, UGTk eta LABek ezetz erantzun ziguten. "Batasunaz" hitz egiten dute une oro, egunez egun; baina araurik gabe, konpromisorik gabe, leialtasunik gabe... jarrera demokratikorik gabe, batera jarduteko borondaterik gabe.

Patronalak, dela publikoak, dela pribatuak, nahiago du, noski, hitzarmenaren edukia hautatzea eta, gero, gutxiengoan sinatzea. Sarritan ikusita daukagu. Zerrenda luze batetik azken bi adibideak aipatuko ditut:

- **Mercedesen** UGTk, CC00ek eta USOk gehiengoa dute Batzordean. Baina haien ordezkari batzuk behartu zituzten ez sinatzera, akordioa gutxiengoan egiteko, eta jendeak atxikimendua banaka egin zezan. Enpresak hala eskatu zielako egin zuten. Gatazka larri bat izanez gero, gainerako sinadura eskatuko zukeen enpresak, grebari bidea mozteko.

- **Osakidetzak:** lotsagarria. Akordioa mahaitik kanpo sinatu zuten, %10 baino biltzen ez duen korporazio-sindikatu batekin. Sindikatu horrek akordioa interneten ikusgai jarri zuelako enteratu ginen. Gobernuak kidego osoaren gutxiengo bat hartzen duen akordio hori Sektore Mahaira eraman zuen, lotsatu gabe, gainerako sindikatuek ontzat eman zezaten. Sinestezina iruditu zaigu. Gu ez gara jaio gaur goizean; baina lehen, itxurak, behintzat, gordetzen ziren. Eta orain, ez. Osakidetzak amaitutzat jo du negoziazioa joan den ostegunean, akordio hori lortu ondoren. Orain Dekretuaren zain gaude.

Baina Osakidetzaren kontu horrek badu bere mamia, azaletik dirudiena baino mamitsuagoa. Askoz mamitsuagoa. Gobernuaren ekintza sindikaletan "batu eta segi" bat izan da, ohiko *modus operandi*-a; horregatik, horrelako gertakizunen azken erantzulea gobernuburua dela esan dezakegu lasai asko. Ba, ez genbiltzan oso oker. 2007ko irailaren 28ko Politika Orokorraren Osoko Bilkuran, zeresan ugari eman duen horretan, lehendakariak jende askori eta komunikabide askori oharkabean pasatu zaion zerbait esan zuen, baina guk oso gogoan hartu genuen. Lehendakariak, Gobernuaren lorpenak aipatzerakoan, hauxe esan zuen hitzez hitz: "*aurre-akordio bat itxi da Euskadiko Medikuen Sindikatuarekin, eta erizainen lanbide-karrera ere onetsi da, sektoreko hiru lanbide-elkargoen onespenez*". Orain bai, dena argi: badakigu zein herritarrekin egiten dituzten kontsultak, elkarrizketak eta akordioak. Edo badakigu, behintzat, haietako batzuk nortzuk diren.

2. Bigarren, joko-arauak hautsi dituzte herri-erakundeen partehartze-esparruetan.

Herri-erakundeen partehartze-esparruetan, besteak beste, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan, Lan Harremanen Kontseiluan, Hobetuz-en, enpleguaren EPSV/BGAEn... arauak zeuden, denon ezagunak eta itunduak.

Baina Lan Harremanen Kontseilua utzi egin dugu, Bizkaiko ugazabek duten jarrera antisindikalgatik, edo hobeto esanda, ELAren aurkako jarreragatik. Hobetuz-en, LABekin batera, gehiengo sindikala osatu dugu urtetan, Espainiako etengabeko prestakuntzaren eredu ustela, Euskal Autonomia Erkidegora sartzen ez uzteko; ez Nafarroan bezala.

Betoa jartzeaz akusatzen gaituzte. Gehiengoaz baliatzeari betoa jartzea esaten diote... Eta orain harantzago doaz: Gasteizko Legebiltzarrak ponentzia bat osatu du, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren arauak, eta Lan Harremanen Kontseiluarenak, aldatzen ote diren aztertzeke, eta "beto"ari amaiera emateko. Demokrazia hutsa.

Eusko Jaurlaritzak, bere kabuz eta dekretu bidez, BGAE/EP SVaren erregulazioa aldatu du, gutxiengo sindikalari akordioak egiteko aukera emateko. Lan Harremanen Kontseiluaren iritziei eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren iritziei ez diete batere jaramonik egin.

Eta berriro ere Hobetuz. Beti Hobetuz. Argi esan behar dugu. Lortuko delakoan geundenok... etsita gaude. Sindikatu espainolen erasoagatik, bertako eta Espainiako patronalen eraginagatik, eta Eusko Jaurlaritzaren kemen gabeziagatik. Egunak joan, egunak etorri, eta Madrilek berea egin du, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak beren zeregin politikoari uko egin diotelako. Bai horixe; kontsulta hitza beti ahoan daramatenak ez dira gauza, ezta gutxieneko defentsa bat egiteko ere, autogobernuari dagokion arlo jakin horretan.

Baina zenbat ikasi dugun Hobetuz-i esker! Ikasi duguna ez dugu inoiz behar beste eskertuko. Hobetuz-ek argi egin zigun Gernikako ekitaldiaren aurreko saioetan, orain dela 10 urte; eta orain, azken asteotan, berriro argitu dizkigu gauzak. Gure oraingo diagnostikoa latzagoa da, ordukoa baino. Esperientzia horretatik gure ondorioak atera ditugu:

1. Estatutu-sistemari iruzurra egin zaio. Ez dute betetzeko asmorik "ez bizitza honetan, ez bestean"; ez arauak, ez finantzaketa.
2. Autonomia kolektiboari iruzurra egin zaio, baita lanbide arteko akordioak egiteko zilegitasunari ere (ET-83).
3. Eusko Jaurlaritzak uko egin dio prestakuntzaren bertako eredu bat sustatzeari. "Dirua banatzeko leihatila" da. Sindikatuei eta patronalari eskuzabal banatzen zaie. Gai hau bereziki larria da: Egiten den guztia egiten da antolatu diren bezero moduko sareen mesedetan.
4. Gobernuak, oraingo honetan eta beti, patronalaren interesen alde egiten du. Eta patronala esan dut, zeren prestakuntzaren kudeaketa honekin, enpresak ere ateratzen dira kaltetan.

Negoiazio kolektiboan bezala, erakunde arteko esparruan ere arazo bat dauka Eusko Jaurlaritzak... eta erabaki bat hartu du.

Zein da arazo hori? Herri honetan, Europako herri gehienetan ez bezala, sindikatu historiko eta jendetsu bat dago. Eta haien esanetan "moderno eta zentzuduna" izan beharrean, ez du bere egiten "kontzertazio sozialaren erregimena", patronalari hainbeste etekin ematen dion erregimena. Erregimen hori, gainera, oso eskuzabala da eskutik doazen sindikatuekin.

Gobernuaren nahia, beraz, EAE "nafar erara" jartzea da. Nafarroan, sindikatuei zein patronalari koipea ematea, gizarte-elkarrizketaren bidez, oso ondo dabil. Maiatzeko hauteskundeak egin baino egun batzuk

lehenago, Nafarroako Gobernuak enplegu-plana luzatu zuen, eta horri esker UGTk, CCOOek eta CENek 25.000 milioi pezeta bideratuko dituzte aurten bakarrik. Eta hortxe dago Nafarroako Kontu Ganberaren txostena, non argi eta garbi salatzen diren etengabeko prestakuntzaren diruaren administrazioan egindako irregulartasunak. Eta jakina, Gasteizko Gobernuari lerdea dario, hori guztia ikustean, eta Nafarroako sistema klonatu nahi du hemen.

Lotsaren lotsaz ikusi dugu nola osatu den Nafarroako Gobernuak. Denok dakigu azken emaitza zein izan den. Den-denok jakingo ez duzuen zera da: hauteskundeen ondoren Nafarroako Patronaleko buruak eta UGT eta CCOO sindikatuak hango arduradunek eskakizun bera egin zuten tinko: UPN Gobernuan egon behar zen. Nafarroan ere, dena dago argi.

EAEko erakundeek joko-arauak aldatzeko erabakia hartu dute. Arauak urratu dituzte, isilbidezkoak eta esanbidezkoak, ahozkoak eta idatziak. Haien asmoa, nahi dutena, zera da: ELAren pisua autonomia-erkidego honetan izatea, Nafarroan duenaren parekoa. Baina jakin behar dute bizitzaren hasiera eta amaiera ez dela Buletin Ofizialean argitaratzen. Eta bizitza sindikalean are gutxiago. Jakin dezatela.

3. Hirugarren, joko-arauak hautsi dituzte politika ekonomiko-sozialetan.

Horren barruan dago gizarte-partehartzearen defizita.

Nafarroan mekanismoa nabarmenegia da: Sindikalismo abertzalea bazter batera uzten dute, erakundearen partehartzeko esparru guztietatik aparte. Eta kitto! Denok dakigu kontu horren berri.

EAEEn, itxurak itxura, gizarte-partehartzeko mekanismoak ez daude demokrazia aurreratuetan daudenen parean, askoz gutxiago daude, gero eta gutxiago, gainera. Hori oso nabarmena da diputazioen kasuan, eta haien barruan foru ogasunetan (zergak) eta gizarte-zerbitzuetan.

Europa osoan zerga-politika erabaki aurretik entzunaldia ematen zaie gizarte-erakundeak. EAEEn ez. Horrelakorik ez da gertatzen, ezta Espainian ere; eta han beherakako demokrazia badakite nahikotxo. Ba, hemen horrela gaude. Hemen, benetan erabakitzen duena Zerga Koordinaziorako Organoa da, eta bere baitan erabakitzen du, inori ezer esan gabe; gero, akordioa erabat itxita dagoenean Batzar Nagusiei helarazten die.

Sozietateen Zergaren erreforma egin denean, gauza bat behintzat oso argi geratu da: enpresaburuei bai, kontsulta egiten diete, erreformaren onuradunak

izanda ere. Ogasunari 200 milioi euro gutxiago ordainduko diotenekin, horiekin bai hitz egiten dutela.

LEHENDAKARIA ENTZUNGOR EGINEZ

Gertakari horiek guztiak oso larriak dira. Batzuentzat ez dira horren larriak izango, agian; baina gure sindikatuarentzat bai. Demokrazian atzera egite hori, aspalditxotik ikusten ari gara. Horregatik, urtarilean, gutun baten bidez helarazi genion gure salaketa lehendakariari ofizialki. Orduan ez genuen jakitera eman. Orain bai.

Zer esan genion lehendakariari?

- Euskal sindikatu nagusia inoiz ez bezalako eraso jasaten ari dela esan genion. Eta egia da.
- Ulergarria dela, nola ez ba, Gobernuaren politikaren edukiak eta sindikatuaren ikuspegiak bide beretik ez joatea. Demokraziak eta klase-gatazkak berezkoa dute ikuspegi desberdinen topagunea izatea.
- Baina bada gauza bat ulertzen ez duguna —ezta onartu ere— desadostasun sindikal eta politikoetatik abiatu joko-arauak aldatzea, buletin ofiziala neurritz gainezka erabiliz.

Lehendakariak hilabete hauetan ez digu deitu. Ez omen zaio interesatzen gure hausnarketa hobeto ezagutzea. Gainera, ELAk orduan azpimarratu zituen gai batzuk larriagotu egin dira azkenaldi honetan: Hezkuntza Sailarekin izandako desadostasuna Hobetuz-en inguruan, Lan Sailarekin eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin EPSV/BGAEn inguruan, Osasun Sailarekin eta abar, eta abar. Orain, Azkarraga jaunaren Saitetik esan digute Hobetuz-en gertatu dena, Osalan-en ere gertatuko dela.

Guk, lehendakari jauna, uste dugu Herri honetako langileei eta bertako sindikatu nagusiari begirune eta adeitasun handiagoxea zor zaiela.

Irailaren 28an, Politika Orokorreko Osoko Bilkuran Ibarretxek tinko eskatu zion Estatuari "printzipio demokratikoak errespetatzeko". Lehendakari jauna, guztiz bat gatoz zurekin. Orduan esan zenuenez, erabakitze eskubidea "*arau demokratikoetan*" dago oinarriturik, "*behar-beharrezkoa da printzipio demokratikoa eskatzea funtsezko tresna baita gatazka politikoak konpontzeko*"... Eta arrazoi osoa daukazu. Hala aitortzen dizugu guk.

Baina, gizalegezkoa denez, printzipio horiek berak Estatuarekiko harremanetan aldarrikatu ez ezik, gure etxean bertan ere erabili behar dira.

Lehendakari jauna: Zure Gobernuak sailburuek zer sustatzen dute?
Gobernuaren jokabidea zein printzipio etikotan oinarritzen da?

Zure Gobernuak, bere ardurapeko esparruetan, hiru eginkizun betetzen ditu ondo baino hobeto:

- Ez die aurre egiten Madrilgo boterei, hemengo eskumenak eta autogobernua babesteko. Batez ere, arlo soziolaboralean.
- Madrili errespetatzeko eskatzen dizkion printzipio demokratiko berak urratzen ditu. Ez datoz bat, beraz, aldarrikapen politiko entzutetsuak eta autogobernuaren eguneroko praktikak.
- Eta gero, gainera, zapalkuntza salatzen duena zigortzen duzue. Zure Gobernuak, lehendakari jauna, antidemokratikoki jokatzear gain, ez du kritika onartzen.

GURE IKUSPEGIA

Ekitaldi honek nolabaiteko oihartzuna egiten badu; baten batek esango du bihar ELA erreta dagoela. Baina, gure artean, esan dezagun esan beharrekoa: erreta baino kezkatuta gaude oso, gure Herriko gizarte-egoeratik eta gure demokraziaren kalitate eskasagatik. Zeren eta babesteko eta zaintzeko emandako arauak indargabetzen badituzte, ahulenak dira gehien galtzen dutenak, babesgabeak eta babesaren ematen saiatzen direnak.

Bizi dugun egoera oso lardaskatua da. Indar-korrelazioa patronalaren aldekoa da; politikariek kapitalaren interesak nahasten dituzte interes orokorrekin; eta iritzi publikoa sorgortu egiten dute ezer ez esateko oinarritzko arauak zapaltzen dituztenean, gizarte-tirabiretan errespetatu behar diren oinarritzko arauak. Eta horri guztiari “modernitatea” esaten diote.

Ez da kapitala demokraziaren beharrez dabilena. Kapitala ederto moldatzen da erregimen guztietan. Geu gara kalitatezko demokrazia behar dugunok. Denontzat arau berdinak ematen dituen demokrazia, eta parte hartzeari oso irekia dena. Babesgabeenak eta ahuleneak behar dute gehien.

Horregatik, oso garrantzizkoa da ez galtzea begibistatik gure indarraren eta gure legezkotasunaren jatorria. Legez-kotasuna ez digute ematen botere politikoek edo ekonomikoek, langileek baizik, enpresarik enpresa. Eta hortik abiatu baliaraziko dugu gure gehiengo sindikala. Itxiko dizkigute ateak, baina ezin digute ukatu langileek emandako ordezkariak eta atxikimendua.

Goi-mailako politikari batek esan zion ELAko kide bati “ELAk marrazten duen mundua ez dela benetakoa”. Hori da, hori. Seguraski hala pentsatzen dutenak,

haien senideak eta hurbileko lagunak ez dira egongo ELAk egunero salatzen dituen egoeren eraginpean. Guk adierazten dugun mundua benetakoa da —ondotxo dakigu guk—, eta mundu horretako pertsoneri antolamendua ematen diegu guk sindikatutik. Eta horrela jarraituko dugu.

Bestelako politika eta bestelako gizartea egin daitekeelakoan gaude. Eta horren bila goaz. 1997. urtean esan genuen langileentzat ona ez dena ez dela ona Euskal Herriarentzat. Eta uste berekoak gara oraindik ere. Horixe da gure ekarpena herrigintzari. Euskal Herri zuzenagoa eta solidarioagoa lortzeko ahalegina. Ez diogu inori utziko gure zeregina ukatzen.

Gora ELA!

Gernika 10 urte
1997-2007
X Aniversario de Gernika

Lizarratik Garazira, indarrak biltzeko bidea

Izaskun Garikano

Gizalaneko Idazkari Nagusia / Secretaria General Gizalan

ELA

Arriaga Antzokia / Teatro Arriaga

Bilbo, 2007ko urriaren 10

10 de octubre de 2007

Politika publikoak, nazio nortasun berri baten zerbitzura

Izaskun Garikano

ELA-Gizalan federazioaren Idazkari Nagusia

Bilbon, 2007ko urriaren 10a

Egunon guztioi!

Berriz ere, hamar urte beranduago, biltzeko hautua egin dugu ELAko militanteok. Berriz ere, gure autogobernuari tenperatura hartu nahi diogu, bere osasun egoera aztertu. Eta azterketa hori egin nahi dugu nor garen, zer garen, zer interesak ordezkatzeko ditugun ahaztu gabe. Gu, euskal sindikatua gara; eta zentzu horretatik herri honen askatasun nahia eta langileen ongizatea bilatu eta uztartu izan da gure konpromisoa.

A quienes estamos aquí nos preocupa el proceso nacional, los avatares del autogobierno, el debate político general. Claro, no puede ser de otro modo. Porque vivimos aquí. Pero quienes estamos aquí, en este acto, miramos todo ese debate desde nuestra perspectiva, desde unas preocupaciones propias, desde unas aspiraciones específicas, que son las del mundo del trabajo. Representamos y somos clase trabajadora y desde ahí analizamos la realidad.

Batzuk esango dute gure ikuspegia partziala dela, sektoriala, eta horregatik pobrea, mugatua, beraz, kontuan hartzekoa ez dena. Baina oker daude, gure jarduerak, gure militantziak, gure praktika sindikalak zera erakusten digu: langileen kezka eta interesak kontuan hartzen dituen azterketa politikoak gertatzen denaren analisi zorrotza egiteko aukera ematen digula. Praktikak hala erakutsi digu.

Analizar lo que pasa con el autogobierno desde la perspectiva del mundo del trabajo es útil, no sólo para enriquecer el debate. Si no que además, nos permite descubrir muchos de los elementos con los que se pretende ocultar el debate político real, y nos permite comprobar que muchos de los discursos que se hacen NO se corresponden con la realidad. Como ese que dice que el autogobierno es para el bienestar.

Gure instituzioetatik esaten dute: autogobernua herritarren ongizaterako dela; jendearen ongizatea dela burujabetzaren xedea. Eta gu ados gaude, horrela izan beharko luke. Eta hori justifikatzeko gehiago esaten dute.

Azken hamalau urte hauetan, Hego Euskal Herriko ekonomiak berealdiko hazkundera ezagutu du; hau esaten dute, eta egia da. Soldatapeko langileen kopurua ere, ikaragarri igo da; eta hori ere egia da. Herri aberats batean bizi gara, munduko aberatsenen artean kokatzen dena alegia; hori ere egia da. Eta egia delako agintariek, gau eta egun errepikatzen dute, errepikatzen digute, hori guzti hori.

Baina errealitate hori ez dator bat guk pairatzen dugunarekin, guri tokatzen zaigunarekin.

Claro, nosotros ya vemos esa estupenda realidad que los gobernantes de Hego Euskal Herria pintan: 14 años de crecimiento económico; 300.000 asalariados más que entonces; somos un país rico, de los más ricos del mundo... ¡Claro que lo vemos, no lo vamos a ver! ¡Vivimos aquí, como ellos!

Nuestro problema no es que tengamos una visión parcial, que no veamos. Lo que ocurre es que nosotros vemos más cosas, y no nos lo callamos: vemos que la riqueza no se reparte con justicia; vemos que la inmensa mayoría de empleos que se crean tienen salarios de miseria; vemos que los nuestros enferman y mueren en el tajo para que otros ganen cuatro perras más; vemos a nuestra gente indefensa, amenazada, acongojada... Esto también lo vemos. Igual ellos no, pero nosotros y nosotras sí.

Vemos que se está empobreciendo a una generación, y no sólo a ella, también a sus progenitores, que tienen que cargar con el coste económico de los jóvenes y los cuidados de niños y mayores y enfermos. Esto también lo vemos. No sabemos si ellos lo ven, pero nosotros sí. Porque nosotros, y los nuestros, lo padecemos. Esta es también la realidad de nuestro país. Es nuestra realidad.

Guzti hori ikusten eta pairatzen dugulako antolatzen gara sindikatuan: enpresari eta gobernuen aurrean gure eskubideak aldarrikatzeko, dagokigunari eusteko.

Baina guk beste gauza bat, oraindik ere, larriagoa dena ikusten dugu: politikaren desertzio soziala alegia. Eta gaur, hemen, politikaren desertzio sozial hori salatu beharrean gaude.

Gure agintarien diskurtsoan askotan agertzen da pertsona, gizakia dela, funtsezko balioa, gizartearen baliorik handiena... baina praktikan pertsona hori, bere kezkak, arazoak eta beharrak kanporatu egiten da eztabaida politikotik.

Y nosotros nos preguntamos, más allá de lo discursivo ¿de verdad a los políticos les preocupa lo que les ocurre a las personas?

Para quienes somos sindicalistas, la política debe servir para resolver los problemas de la gente. Pero decimos más: cuando la gente está indefensa frente al capital, cuando la gente necesita servicios públicos que resuelvan problemas, cuando la gente necesita vivienda accesible o más ingresos, entonces la política debería ponerse al servicios de la

gente. Debería defender a quien necesita defensa. Y esta es la realidad que no existe. Este es el cuadro que nuestros dirigentes políticos no quieren pintar y por eso decimos que han desertado de su compromiso social.

Han preferido ver la sociedad a través de los ojos de los empresarios, ponerse de su lado y obviar la situación de la clase trabajadora y sus necesidades.

Llegados a este punto alguno dirá, “, pero ¿no iban a hablar del autogobierno?”. Claro, es que nosotros hablamos de autogobierno. Hablamos del que existe: el que unos disfrutan y otros padecen.

Gure gobernuek uko egin diote politikari dagokion birbanatze paperari. Enpresen etekinez arduratzen dira eta horiei laguntzeko eta babesteko ahal duten guztia egiten dute. Gure agintariak uko egin diote klaseen arteko lehiari nolabaiteko oreka emateari. Agintariontzako, enpresariak dirua erruz irabaztea da herri honi gerta dakioken gauzarik onena. Eta horretaz arduratzen dira.

Las instituciones vascas, gobiernos, diputaciones, tienen importantes instrumentos para poder desarrollar sus políticas sociales. Las decisiones que se toman a este respecto hacen que la sociedad sea de un modo o de otro y, a nuestro entender, esas decisiones, que son políticas, deberían estar al servicio de los más indefensos, de quienes precisan servicios, de los que sufren los abusos de este sistema económico y social indecente.

Un ejemplo muy ilustrativo es el los impuestos. El autogobierno permite decidir sobre quién paga y cuánto se paga. Y en base a eso toman decisiones sobre cómo financiar servicios tan importantes como la sanidad, la educación, la vivienda, los servicios sociales... Y deciden, claro que deciden.

Zergak oso inportanteak dira. Historikoki, demokrazia garatuetan, fiskalitatea izan da estatuek zeukaten tresna nagusia, merkatuak sortzen dituen desorekak, injustizia ekonomikoak, ekiditeko. Jendeak zerbitzuak behar ditu, babesa behar du... Zer egiten ari dira Nafarroan Komenioarekin, eta Erkidegoan Kontzertuarekin? Zer egiten ari da autogobernuak duen tresna nagusi eta garrantzitsu horiekin? Jendearen zerbitzura jarri dute edo kapitalaren zerbitzura?

Hau da guk ikusten duguna:

Primero, no se ataja el fraude fiscal.

Erazagoa da bono-lotoa irabaztea inspeksio fiskal bat edukitzea baino.

Segundo: cuatro reformas del IRPF en diez años para que paguen menos quienes más ganan.

Langile jendeak bakarrik ordaintzera doa zerga hau.

Tercero: se baja el impuesto de sociedades por enésima vez, el impuesto sobre los beneficios de las empresas.

Enpresen erdiak ez du pagatzen zerga hori; foru ogasunak hala esanda; bai, ondo esan dut, enpresen erdiak ez du pagatzen, esaten dutelako etekinak ez dituztela. Han hecho un regalo a las empresas de 200 millones de euros. El Presupuesto del Dpto. De Vivienda es de 185 millones de euros.

Y todas estas reformas a escondidas, sin debate ni participación. Aquí no han querido contar con la sociedad. Pero el resultado de las sucesivas reformas es que mientras una persona sujeta a nómina, es decir, cualquiera de nosotros declara una media de 18.000 euros, los empresarios declaran una media de 10.000 euros. Para esto sirven las reformas, para que los empresarios declaren casi 8000 euros menos que los y las trabajadoras. Y a nadie le llama la atención.

Recaudan menos y dicen no tener para gastar; y algunos personajes tan poco serios como Inclán se atreven a verbalizar: "como para todo no llega, de algún sitio habrá que quitar. Y de administrar bien saben mucho las amas de casa". Hay que tener poca vergüenza!!!!

Y junto con eso nos quieren convencer de que lo público es caro y no es eficaz. Da igual que el problema sea una intencionada mala gestión que luego les va a servir de coartada para privatizar y beneficiar a algún amiguete. El caso es poder decir que lo público no funciona bien para justificar una menor presión fiscal y dedicar menos al gasto social.

Porque una de las consecuencias directas de todo esto es precisamente que se dedica menos recursos públicos a gasto social. Y a quienes más nos afecta este recorte es a quienes necesitamos de lo público. Los y las trabajadoras de este país y la cada vez más creciente bolsa de personas que viven por debajo del umbral de la pobreza. Las clases pudientes no necesitan de lo público: lo utilizan, si es que pueden, y sobre todo lo denostan, lo desacreditan.

El gobierno de Gasteiz, las diputaciones forales, el gobierno de Navarra, podían haber optado por recaudar más y cubrir las necesidades sociales de la población. Pero en lugar de ello han preferido tener superávit, mucho superávit. Hablamos de 1.100 millones de euros.

- Superabita dago eta gazte jendeak ez dauka pisu baten sartzerik
- Superabita dago, eta irakaskuntzako eta osasungintzako plantillak ez dira nahikoak dituzten lan zamei aurre egiteko.
- Superabita eta gero eta gehiago privatizatzen da bi arlo horietan.
- Superabita eta ume guztientzako haurreskolarik ez dago
- Superabita dago eta giza asistentzialen zerbitzuak privatizatzen dira.

- Superabita dago eta gure aiton-amonen beharrak merkatuko preziotan ordaindu beharra dago, pisua edo pentsioaren truke.
- Eta larriena, lotsagarriena: egun, Euskal Herrian, superabita eta milaka pobre. Askok eta askok nomina batekin, baina pobreak.

Quiero recordar aquí lo sucedido con la **Iniciativa Legislativa Popular** que preparamos el año pasado conjuntamente con ESK y STEE-EILAS. En la CAPV PNV, EA, PSE, PP y Ezker Batua se pusieron de acuerdo para impedirnos incluso recoger las firmas. En Nafarroa recogimos 10.000, y UPN y PSN se negaron a aceptar la discusión de los textos en el Parlamento. Aquí al Lehendakari se le perdió la sociedad; para esto ni siquiera se habilitó página web. ¡Y luego hablan de democracia participativa!

Hau da gure argazki soziala. Gernikatik hona, hamar urteotako gure balantzeak, langilegoaren ikuspegitik, atsekabea besterik ez digu sortzen. Halere, baten batek esango lezake: "neoliberalak dira, zer espero zenuten bada?". Are gehiago, esan dezake: "eskuinekoak dira, eta zilegitasun osoz, hauteskundeek ematen baitie zilegitasun demokratikoa politika horiek egiteko".

Horretan arrazoia dauka. Kontua, ordea, ez da zilegitasuna. Zilegitasun osoa daukate eskuinekoak izateko, noski baietz. Eta guk aitortzen diegu.

Claro que tienen todo el derecho del mundo a ser derechas, y a implementar sus políticas insolidarias, a ser neoliberales. Faltaría más. De la misma manera que nosotros tenemos todo el derecho a criticarles.

Pero hoy, aquí, nosotros hemos dicho, que vamos a hablar del autogobierno.

Noski, autogobernuari buruz hitz egin behar dugu. Ez bakarrik Gernikako ekitaldiaren urteurrena ospatzen dugulako; ez bakarrik autogobernuarekin oso kezkatuta gaudelako; horregatik bai, baina hitz egin behar dugu ere, gaurko egunean, erkidegoko agintari nagusiak, lehendakariak alegia, mahai gainean, autogobernuaren eztabaida bete betean jarri duelako. Horregatik ere, hitz egin behar dugu.

Txiki eta Joxe horretaz arituko dira. Nik ekarpen txiki bat besterik ez diot egingo eztabaida horri, eta galdera moduan gainera.

Nosotros hablamos de lo social porque hablamos del autogobierno. Y porque precisamente el lehendakari, desde su legítimo liderazgo institucional ha puesto el debate del autogobierno en el centro, nosotros nos tenemos que hacer unas preguntas.

¿Cómo demonios pretenden ilusionar a la gente y movilizarla, en un proceso de construcción nacional, de afirmación colectiva, de por sí conflictivo, crítico por la magnitud de sus enemigos, si al mismo tiempo, a esa misma gente se la maltrata desde la instituciones, si sus necesidades e incertidumbres laborales y sociales, están fuera de la agenda de la institución que se propone liderar ese proceso? ¿Cómo van a ilusionar a la gente si ésta no percibe que ese proceso suponga nada para su bienestar? ¿Cómo nos van a ilusionar, si lo que percibimos es que sólo salen en defensa del autogobierno cuando se trata del tratamiento fiscal de unas empresas que se están forrando?

Nosotros creemos que construir una nación es alimentar un proyecto colectivo, integrador, solidario... Por eso creemos que neoliberalismo y construcción nacional sin contenido social, son incompatibles. Porque el neoliberalismo, por su propia naturaleza, destruye toda forma de vínculo colectivo, lo mercantiliza: las relaciones sociales, de trabajo, el ocio, la vida cultural, el medio ambiente... Todo se mide desde la óptica de la obtención de beneficio.

Nosotros creemos que unas políticas sociales solidarias, que ponga a los más indefensos en el centro de su atención, servirían para que más gente, más allá incluso de sus ideologías, vea las ventajas de que las decisiones, las grandes y las pequeñas, y subrayo ahora, también las aparentemente pequeñas, se tomen en Euskal Herria.

Nosotros creemos, que las políticas sociales son por ello un instrumento fundamental para generar una auténtica identidad nacional renovada y compartida, basada en valores de solidaridad, de justicia social.

Egun Euskal Herrian nagusi den eztabaida politikoan sinestu nahi genuke.

Baina gu sindikatua gara, eta sinestu ahal izateko, gure behatza, besteak beste, benetako politika sozialen zaurian sartu beharrean gaude, derrigorrez. Zulo hori huts hutsik jarraitzen du. Eta guri, ikusten duguna, eta ukitzen duguna, esatea dagokigu.

Mila esker

Gora ELA!

Lagunok,

Lehen-lehenik ELAk atzo Bilbon izan zen atentatua gaitzetsi egiten duela adierazi nahi dut; halaber, sindikatu guztiaren elkartasuna helarazi nahi diot zaurituta gertatu zen Gabriel Ginesekin.

ELAk ETArri galdegiten dio estrategia armatuari uko egin diezaiola, izan ere bertoko herritar guztioi zor zaigun bizikidetzarako oinarriak hankaz gora botatzen baititu. Ez gara aspertuko esaten Euskal Herrian bortizkeriak eta bortxak ez daukatela tokirik, ez zentzurik.

I. Atzera begira; balantzea

Ia hamar urte igaro dira Gernikan egin genuen ekitalditik. Zenbaitek oraindik bizi-bizi izango dute gogoan; hemen bildu zareten askok, berriz, gure sindikatuaren historian aipatu gabe utzi ezin den eguna delako izan duzuen haren berri.

1997ko urriaren 18an lehenago esandako zerbait adierazi genuen berriro; alegia, Estatutua hilda zegoela, estatutuen bidearenak egin zuela; indarrean zegoen esparru juridikoa nazio-erakuntza prozesu baterako gainditu ezineko oztopoa zela, prozesu horrekin bateratu ezineko zerbait.

Halaber, 1997ko urriaren 18an lehenagotik irmo, sarri eta argi esandako beste zerbait ere esan genuen: ekintza armatuak nazio-erakuntza prozesu batekin bateraezinak zirela.

Ordurako, jatorri ideologiko anitzak eta esperientzia politiko zein sozial desberdinak izanagatik, askok ikusi genuen beharrezko aldi berri bati ekitea, ildo autodeterminista hartu eta erabakitzeko esparrua helburu estrategiko bihurtzea.

Gernikako gure ekitaldia egin eta denbora luzerik ez zen joan Lizarra-Garaziko hartara. Bazirudien gauzak heldutasunera iristen ari zirela, bide onetik zihoazela; jite zibil eta demokratiko hutsa zuen bilgune subiranista gauzatzen hasteko baldintzak sortzen ari zirela.

Trantsizio demokratikoa hasi zenetik, ez zitzairen indar estatalistei Lizarra-Garaziko sasoi bezalako noraeza eta kezkarik igarri, hain zuzen konturatu baitziren 'euskal auzia' delako honetan kontrola eta ekimena galtzeko arriskuan zeudela.

Egia da saio hark kale egin zuela; behar bada ez genuen pazientzia nahikoa izan; behar bada prozesua atzera ezineko egiteko heldutasuna eta konpromisoa ez geneukan. Baina hutsegiteen artean ez zegoen indar politiko eta sozialak baztertzea, kanpoan geratu zirenek euskal erabakiguneari zirrikitu, bide eta aukera oro ukatzen baitzioten.

Noski, ordutik hona gauza asko gertatu da, gauza asko, gero eta bakardade politiko eta sozial handiagoan dagoen ETArren bortizkeriak jarraitu izanaz gainera. Gertakari larriak ikusi ditugu; horien artean honakoak:

- PP boterean zegoela Alderdi Sozialistak bultzatu zuen itun antiterrorista; itun hau ETArren aurkako borroka baino askoz harago joan da; hedabideak itxi ditu; auzipean jarri du biolentziarekin inongo zerikusirik ez duen jendea (18/98 sumarioa). Itun antiterrorista hori Alderdien Legea medio indarrean dago, eta

botere judizialaren kideek -PP eta PSOEn arteko banaketaren arabera hautatuak- behin eta berriz nabarmen uzten dute zuzenbide-estatua omen dena;

-Gasteizko Legebiltzarrak onartu zuen Estatutu berria modurik zabarrenean baztertu zuten Espainiako Diputatuen Kongresuan, aintzat hartzea ere ukatu baitzuten. Estatuaren kalitate demokratikoa alde eta moldez zein eskasa den argi utzi zuen jokabide horrek;

-Anoetako proposamenarekin burujabetzaren aldeko indarrak biltzeari uko egin eta ENAM eta Estatuaren arteko hartueman zuzena saiatu zen; ekimen honek ere porrot egin du. Porrot, izan ere, hasieratik ez baitzuen aukera politikorik, gatazka armatuaren irtenbidea auzi politikoaren irtenbidearen menpe jartzea huts estrategikoa baita;

-Nafarroan hauteskunde osteko itunaren negoziazioak agerian utzi ditu Alderdi Sozialistaren mugak eta amarruak. Negoziatio honekin argi geratu da abertzaleok gutxiengo garen tokian itxurak ere egin gabe baztertu egiten gaituztela;

-halaber, Kataluniako Estatuaren erreformak argi utzi ditu Espainiako Gobernuaren mugak eta amarruak. Zalantzarik bazegoen, erreforma horrekin frogatuta geratu da hemen, Katalunian, eta beste inon bide estatutarioa irtenbiderik gabeko ildo delata.

Adibide bakoitzak, eta areago, denek batera, baliorik gabe uzten dute Alderdi Sozialistarekin euskal auziaren irtenbidea bilatze aldera egiterik badagoela dioen hipotesia; une politiko egokia aurkitu besterik ez dela egin behar.

II. Transbertsalitatearen gezurra

Bada, harrigarria irizten badiogu ere, 90eko hamarkadan estatutismoa berpiztu nahi zuenik bazegoen bezala –estatalistek *status quo*ari eusteko, eta nazionalismo instituzionaleko sektore batzuk nazio auzian gatazka demokratikoa ez bultzatzeagatik–, orain inora ez daraman beste bidaia batean sartu nahi gaituzte, beste hitz bat ahotan hartuta: ‘transbertsalitatea’. Are gehiago harritzen gaitu, ordea, ENAMek transbertsalitatearen zera birtual horretan parte hartzea, PSOErekin erabakitzeo eskubideaz eta lurraldetasunaz akordio batera iristerik badagoela sinetsita, edo guk sinestea nahi duelarik.

Transbertsalitatean denetarik sar daiteke, euskal erabakigunea izan ezik. Muga hau ongi asko ezagutzen dute abertzale instituzionalen artean doktrina, helmuga estrategikoa bera ere berrikusi nahi dutenek, hartara hauteskundeetarako marka huts bilakatuz, estrategikoki paktista, eta banaketa instituzional, politiko, ekonomiko eta sozialean eroso, betiere subirania eskubidea bakar-bakarrik beretzat gordetzen duen Estatu baten barnean. Hau ez da modernitatea, eta aurkakoa ere ez da probintziano edo etnizista izatea.

ENAMek jakin beharko luke honez gero transbertsalitatearekin ez dela nazio-erakuntza bultzatzen; Anoetakoa baino lehenago jakin beharko zukeen, eta noski, ondorioztapen hau behin-betiko egin beharko luke gizaritearen aurrean, eta ez errepikatzen ibili delako ‘prozesu’ak porrot egin duen arren oinarriak ezarrita daudela. Zein-tzu oinarri? Norekin?

Zein oinarritaz ari dira Espainiako Gobernuak, botere judiziala medio, biltzea beste 'delitu'rik egin ez duten joera politiko bateko ordezkariak espetxeratzen dituenean, jakinik joera politiko hori edozein normalizazio prozesutarako ezinbestekoa dela? Hau ez da anekdota hutsa; hau ez da unean-uneko kontua, hauteskondeetarako kalkulua begibistako arrazoia izanagatik ere. Behin-betikoa, irauten duena, ikusmolde jakobino sutsu batean datza.

Transbertsalitatearen mamia Estatuaren beto-eskubidea da, eta horrela euskal gehiengoak ez dauka bere eskari eta aldarrikapenak gauzatzeko aukerarik. Hori da Estatuak pluralitateari ezartzen dion muga.

'Transbertsalitate' horren atzean ere abertzaleon, geure, gaitasun eza ezkututzen da: ez gara autokritika egiteko eta estrategiak aldatzeko gauza, ezin diogu hegemonismoei uko egin; ezin dugu elkar hartzeko aurrebaldintza den aniztasun politiko eta soziala onartu, ez gara diskurtsoetik harago hurbiltzeko eta batzen gaituzten osagaiak, lehentasunak zein metodoa zehazteko gai.

III. ETArri ez

Aurrerapen handia egin dugu Euskal Herrian ideia bat gizarteratu den heinean: gatazkaren irtenbidea erabakitzeke eskubidearen errespetuarekin lotuta dago; baina paradoxa dirudien arren, atzera ere itzuli gara; are, 1997 urte aurreko garaira; oraingo bidegurutzean Trantsizio hasierako hutsegite estrategiko bikoitzean eror gaitzke, estatutismoa edo ekintza armatua, denbora igaro ez bailitzan; ezer ikasi ez bagenu bezala; politika-, gizarte- eta kultur-arloetan gure arteko lankidetzak ezinezko bailitzan.

ETAk setaz ukatzen die abertzaleei, abertzale gehienei, bere interferentzia eta bortizkeriarik gabeko prozesu subiranista batean bat egiteko aukera. Abertzaleok, abertzale askok, ETAREN kaltetun handienak geu garelako irizten diogu.

IV. Ibarretxeren proposamena ez da sinesgarria

Abertzale instituzionalek ere ez digute pozik egoteko inongo motiborik ematen; zergatia azalduko dugu. Baten batek gogoan al du konpromiso hura: epe batean eskumen osoen transferentzia eskatu eta hori lortu ezean eskumen horiek aldebakarreko erabakiz bereganatuko ziren, Kupoan zegokion deskontua eginez?

Konpromiso honen iragarpen handia 2002ko uztailean egin zen, Legebiltzarrean. Konpromisoarekin batera epe bat aipatu zen: urte hartako irailerako Espainiako gobernuak egutegi bat agindu behar zuen, eta hala ez egitekotan, Gernikako Estatutua osatzeko ekimen politikoa izango zen.

Harrezkero Estatuak eskumenean bat eman al du? Eskumenean bat bereganatu al dute gure erakundeek aldebakarreko erabakiz? Kupoan deskonturen bat egin al da?

Ez da emateke zegoen eskumen bat ere jaso; eskumenik ez da bereganatu; Kupoan ez da kenketarik egin; ez da erantzunik, ez azalpenik eman; ahanztura besterik ez.

Gero, lehendakariak beste konpromiso bat hartu zuen, 2004ko urte amaierako mezuan: Estatutu politiko berriari buruzko kontsulta egingo zuela EAEn, Madrilek arbuizten

bazuen ere; horixe gertatu zen. Konpromisoak bazituen baldintza batzuk, baina oso zehatza zen: herritarrek berrets zezatela Legebiltzarrean onartu zen testu bat.

Konpromiso hau ere ez da bete, eta aurrez aipatutako baldintzak ez zeudela badakigun arren, ezin da ontzat eman berriz ere aldatzea, ez baita bakarrik proposamenaren izaera aldatu; indar estatalistekin negoziatzeko epealdi berri bati ekin nahi diote.

Ibarretxek inondik espero ote du Zapaterok orain ez duela Gasteizko Legebiltzarrean onartutako testua arbuia zuenean bezala jokatu, ez duela Kataluniako Estatuaren erreformarekin egin zuena egingo?

Lehendakaria ez da hain sineskorra; aurrez erantzuna bazekien, eta bazekien gainera erantzuna oso zakarra izango zela, PSOE eta PPK aldi berean emana, irain, astakeria eta mehatxu handiagoa nork botako zuen lehia eginez.

Beraz, zer dela eta atzeratzen du ekainerarte Estatuarekiko akordioa lortzeko epea, jakinagatik ezinezkoa dela berak proposatzen duen moduan? Bere gobernuak gutxiengo baten babes parlamentarioa daukala jakinik, bere proposamenak puntu konkretu bakarra du, datorren udazkenean hauteskunde aurreratuak izango direla.

Egindako promesa birritan ez du bete; beste proposamen hau gure ustez inora ez doan bidaia da, edo ezaguna den egoerara garamatza. Bitartean, bere gobernuak eskumenen inguruko gatazka bati ere ez dio aurre egiten, Madrildik langileen prestakun-tzarako dirua berau kudeatzeko baldintza guztiak ezarriz transferitu nahi dutenean.

Horixe dugu egungo egoera politikoa. Jaurlaritzak langileen prestakuntzarako baldintzapeko dirua besterik gabe onartzea erabaki du, zuzenean Confebask, UGT eta CCOO finantzatzeko dirua alegia.

Beraz, indarrean den legeriaren esparru mugatua posible den eta eska daitekeen autogobernuaren defentsa taxuzkoa eta jarraitua ez bada; benetako iruzurra bada; gutxienezko defenditzen ez badute, nola egingo dute funtsezko zerbaiten aldeko borroka? Oso eszeptiko gara, eta ez dugu intentziorik juzkatzen; besterik gabe faktuei erreparatzen diegu.

Zalantzarik gabe, ardurak gobernuan kide diren hiru alderdien artean banatu behar dira, EAJ, EA eta EBren artean, alegia, handira jota irabazi nahi baitute, eguneroko jardunean maila autonomiko onargaitzari men egiten dioten arren.

Ibarretxeren proposamena ez dator inondik ere bere gobernuaren ildoarekin bat. Lehengo lepotik burua; lehenago ere ezagutu ditugu bete gabeko konpromisoak; kudeaketa hutsean galtzen da; edukirik gabeko eskumenak onartuta inoiz ikusi gabeko jokabidea agertzen du; Alderdi Sozialista Jaurlaritzan izan zenean ere ez zen horrelakorik egitera ausartu.

Harritzekoa da, baina duela hamar urte Gernikan hain zuzen INEM ez transferitzeko erabakia salatu genuen, eta orain EAJ-EA tandemak onartzen ditu Estatuarekin bat ez datozen finantza-baliabideak. Lan sailburuak aurreratu digunez, gauza berbera egingo dute lan-osasuneko fundaziora bideratutako diruarekin. Oso jator esaten duten moduan, 'money is money'.

Ez dugu, ez, Ibarretxeren proposamenean sinesten. Ez dugu sinesmenik gobernuko bere kideengan. Ez soilik lehenago jandako hitzagatik; ez bakarrik autogobernuaren defentsa oso eskasa delako. Gure irudiko, konfiantzarik ez izateko beste arrazoi bat, aurrekoak bezain mamitsua, egiten dituzten politiken eredu soziala da: biltzen diren zergen murrizketa, osasun sistema publikoaren pribatizazioa...

Enpresaburuek, inoiz baino diru gehiago irabazten ari direnean, Sozietate Zergaren erreformari esker urtero 200 milioi euroko oparia jasoko duten arren, enpresaburu horiek, diogu, jarrera aldatu eta Ibarretxeren proposamena babestuko ote dute? Edo osasun sistema publikoan diren sektorerik elitista eta kontserbadoreenak gogoratuko ote dira oraintxe Jaurlaritzak eman dien 9 milioiko eskupekoaz eta lehendakariaren proposamena aldeztuko dute?

Zergak behin eta berriz murriztuz, herri-osasungintza pribatizatuz, zein sektoreren mesedetan dihardute? Herritar gehienek alde (jende gehienak gero eta beharrian sozial handiagoak ditu eta horren politika neoliberalak ez du ulertzen)? Edo presio-talde gisa jokatuz gure administrazioetik nahi duten guztia lortzen duten gutxi horien onerako? Zein dira Ibarretxeren zinezko aliatuak?

Hau guztia leialtasunez esaten dugu, eta errespetu osoz, bai baitakigu prozesu subiranistak indar handiagoa hartzen duela erakundeak aitzindari badira; eta aitzindari izatea lehendakariari dagokio, legitimitate osoz, bere gain hartzeko prest balego. Noski, honek ere estatalistengandik bereizten gaitu; leialtasuna, errespetua eta talka demokratikoan aitzindariak instituzional sendo batekin erantzuteko gaitasun handiagoa dagoelako uste osoa. Noski, estatalisten eta gure artean dagoen alderik handiena kontsultarekiko jarrera da: eurek ez dute nahi, eta guk, aitzitik, bai; kontsulta aldarrikatu egiten dugu; behar dugu.

Baina hemen ezerk ez dauka diskurtsoarekin zerikusirik: ez autogobernua nola defenditzen duten, ez taxutzen ari diren gizarte-ereduak, gabezia handiak izan arren aurrekontuetan superabita lortzea baita euren kezka; ezta boteretik joko-arauak nola aldatzen ari diren ere, zertarako eta euskal gehiengo sindikalak lantoki bakoitzean lortu duen ordezkari mailaren arabera dagokiona ere defenditzeko modurik izan ez dezan.

Berriro diogu, gure ikuspegitik garrantzitsuena ez dira hitzak, egintzak baizik; zer egiten den, norentzat eta zein jarrerarekin. Gaur Eusko Jaurlaritzaren ardura dutenek ez daukate bat ere koherentziarik; inondik ere ez. Autogobernua defenditzeko indarrik ez; gizarte-eredu zeharo neoliberalarekin; amarruz betetako jokabide batekin, gehiengo legitimitatearen orde beren politikak zurrizteko gutxiengo babesa hautatzen dutela. ELArentzat "goizalderaino negoziatzea" trufa besterik ez da.

Behar bada zerbaitetarako baliagarri izango da lehendakariaren proposamena; behar bada ez da agortuko PSOE eta PPren irain zaparradan; bide batez, bi alderdion jokabidea beren sakoneko jarrerarekin, duten kultura demokratiko ezin eskasagoarekin bat dator eta hauteskundeetan ere islatzen da: bien arteko lehia bakarra Konstituzioaren defentsan gotorragoa zein den demostratzea da, edota euskal auziarentzako irtenbide demokratikoa izan daitekeen edozerren aurka gogorren zeinek egiten duen.

Agian baliagarri izango da bere alderdian bertan, EAJn, ederki finkatuta dagoen neostatutismoak denbora batean eztabaidaren erdigunean egon ez dadin; baina soilik denbora baterako, eta gainera hori ere ez da segurua. Hauxe da proposamenaren beste

ahulezia bat: horrelako urrats batek proposatzen duten indar politikoen aldetik kohesio handia eskatzen du. Bestalde, begibistakoa da lehendakariak bere proposamena Legebiltzarrean plazaratu duela, baina ez du bozkatu arazi. Honekiko beste kontutan sartu gabe, ez dirudi oso abiapuntu ona kontsulta bezain gai garrantzitsu batetan.

Noski, ezin utzi aipatu gabe egun diputazioetan nagusi den gardentasun eza eta defizit demokratikoa, Nafarroako bizitza instituzionalean euskal kutsua duen guztiaren bazterketa (hain zuzen, lurralde horretan herritarrei inoiz ez diete kontsultarik egin, ezta Foruaren Hobekuntzari buruz ere). Azkenik, ez da ahaztu behar desagertarazi egin nahi dutela Ipar Euskal Herriko errealitate nazional, instituzional, sozial edo kulturalaren zantzu oro.

Horrek guztiak gure tokian kokatzen gaituzte; gauza bat frogatzeko balio dute, boteretik zer nolako tratua ematen diguten: indar-erlazioa zein ekuanimitate eta begirune gutxirekin, zenbateko harrokeria eta agintekeriarekin baliatzen den. Errealitate horien argitan, gure nazio- eta klase-kontzientziak errealista izatera behartzen gaitu, baita zuhur jokatzera ere; soilik ikusten dena sinesteko zuhurtzia; ukitzen duguna besterik ez sinesteko zuhurtzia; errespetua soilik errespetatzen zaituztenei adierazteko zuhurtzia.

V. Lizarra-Garazira itzuli

Beraz, zein da gure proposamen konkretua? Lizarra-Garazira itzultzea. Ez da nostalgia, ezta, batzuk aurpegiatu diguten legez, erlojua geldirik edukitzea. Hemen gakoa ez da erlojua, iparrorratza baizik, eta iparrorratzak abertzaleontzat oraindik Lizarra-Garaziko norabidea erakusten du.

Lizarra-Garazira itzultzea ez da orduko formatoa, edukiak edo egutegia kopiatzea. Lizarra-Garaziren mamia lotsarik gabe, irmo, aldarrikapen bat egitea da: indar subiranistak biltzea beste biderik ez dago nazio-eraikuntzaren prozesuko hurrengo fasea egiteko; hori, nolana ere, lehen urratsa izango da, Estatuarekiko negoziazioaren aurrekoa; espero dugu ordurako Estatuaren jokabidea orain baino zibil eta demokratikoagoa izango dela.

Kontsulta prozesu honetan kokatzen da, eta berarekin dakarren legitimazio demokratiko itzela medio, erabakigarria da; guk kontsultan sinesten dugu, eta uste osoz defenditzen dugu. Baina kontsulta landu egin behar da; indar politiko eta sozial subiranisten arteko adostasuna eskatzen du: esparrua, edukia, kudeaketa, denborak... funtsezkoak gertatzen dira.

Argi utzi digu orain arteko ibilbideak zeharbiderik ez dagoela; inongo indarrak ezin du bere kasa, aldebakarretik jokatzuz, estrategia alternatiborik ezarri; nahi dugunok, soilik nahi dugunok, gara beharrezko. Nork bere erritmo eta moldez, betiere elkar hartuta lan egiteko, bat eginda aldarrikatzeko eta aurrera egiteko beharrezko diren gutxieneko puntu horiek adosteko gauza bagara.

Aitor dezagun: oinarri subiranista, burujabetzaren alde dagoen oinarriko jende guztia, Lizarra-Garazin dago; inoiz ez zuen orduan bezalako ilusiorik izan, ez gogo eta konpromiso handiagorik agertu; inoiz ez gara gure artean elkarren hain hurbil egon. Subiranista garen guztiok Lizarra-Garazi gogoan genuenean, harengan sinesten genuenean zergatik aldatu da estrategia?

Beraz, gure apustua, euskal erabakigunearen aldeko indar politiko eta sozialak biltzea da; konpromisoan bermatutako biltzea, bakoitzak ekartzen duena, indar bakoitzaren interes eta lehentasunak errespetatuz lortutako elkarrengatzea.

Hiru baldintza besterik ez daude, baldintza objektiboak, denboraren poderioz gero eta argiago ageri direnak: Ezin dira garai berean borroka armatua eta indarrak biltzeko prozesua egin; ezin da estatutismotik subiranismora igaro aldakuntza estrategikorik egiteke; ezinezkoa da politika neoliberalak egin eta gizartearen gehiengoa proiektu batera erakarri, Estatua irtenbide demokratiko bat hautatzera eramango duen proiektua.

Adostasunera iristen ez garen arte saiatu beharra dago. Hori da, behintzat, ELAren konpromisoa. Konpromiso horren alderdi bat da askatasun osoz eta ardura handiz hitz egitea, hausnartuz eta eztabaidatuz, abertzaleok prozesu subiranista bati ekin diezaiozun; izan ere, elkarrekin egin dezakegu; elkarrekin egin dezakegu bakarrik.